BESTELAKO XEDAPENAK

HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA

666

9/2015 EBAZPENA, otsailaren 3koa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, Euskadiko Bide Segurtasunerako eta Mugikortasun Seguru eta Iraunkorrerako Plan Estrategikoa 2015-2020 onartzeko Erabakia, Jaurlaritzaren Kontseiluak hartutakoa, argitara ematea xedatzen duena.

2015eko otsailaren 3an egindako bileran, Gobernu Kontseiluak honako erabaki hau hartu zuen: Euskadiko Bide Segurtasunerako eta Mugikortasun Seguru eta Iraunkorrerako Plan Estrategikoa 2015-2020 onartzeko Erabakia. Horri beharrezko publizitatea emateko, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulua bakarra.– Euskadiko Bide Segurtasunerako eta Mugikortasun Seguru eta Iraunkorrerako Plan Estrategikoa 2015-2020 onartzeko Erabakia, eranskinean jasotzen dena, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko otsailaren 3a.

Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendaria,
SANTIAGO LARRAZABAL BASAÑEZ.

ERANSKINA, JAURLARITZAREN IDAZKARITZAKO ETA LEGEBILTZARRAREKIKO HARREMANETARAKO ZUZENDARIAREN OTSAILAREN 3KO 9/2015 EBAZPENARENA

Erabakia, Euskadiko Bide Segurtasunerako eta Mugikortasun Seguru eta Iraunkorrerako Plan Estrategikoa 2015-2020 onartzeko dena.

15/2012 Legeak, ekainaren 28koak, Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzekoak, segurtasun publikoaren antolaketa-eremuaren ikuspegi integrala finkatzen du, lege horrek artikulatzen baitu administrazio publikoek abian jartzen duten xedapen, prozedura eta baliabide sorta bat, helburu duena baldintzak sortzea eta oztopoak ezabatzea pertsonek bete-betean disfruta ditzaten beren eskubideak eta askatasunak eta posible izan dezaten bizikidetza baketsuan, ongizatean eta gizarte kohesionatuan bizitzea, hartarako ahal den neurrian murriztuz arriskuak eta perilak, nahita edo nahi gabe gertatu ohi direnak, pertsonen eskubideei eta askatasunei dagokienez, bai eta pertsonen euren, beraien ondasunen eta ondare kolektiboaren segurtasunari dagokionez ere.

Ekainaren 28ko 15/2012 Legeak, Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzekoak, bere 64. artikuluan bide-segurtasunaren arloko plan estrategikoa eta jardute-planak arautzen ditu. Bide-segurtasunaren arloko planak zehazten ditu bide-segurtasunean inplikatuta dauden eragile publiko zein pribatuen multzoaren lerro estrategikoak, programak eta ekintzak, honako helburu hauekin: zirkulazioko segurtasuna gehitzea, istripu-tasa murriztea, mugikortasun iraunkorra bilatzea, gidatzeko eran eta zirkulazioan aldaketa kulturala bultzatzea, biktimak dituzten istripuen etengabeko murrizketa eta trafiko-arloko arrisku handiko portaerekiko arbuioa eragiteko.

Euskadiko Bide Segurtasunerako eta Mugikortasun Seguru eta Iraunkorrerako Plan Estrategikoaren (2015-2020) aurrekaria Euskadiko Bide Segurtasun arloko 2010-2014 Plana izan da, eta aurreko plan hori Herrizaingoko sailburuaren 2010eko uztailaren 15eko Aginduaren bidez onartu zen.

Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saileko Trafiko Zuzendaritzak plan horretan ezarritako helburuak bete dira eta horiei esker lortu da, aurreko urteetako biktima kopuruei begiratuta, trafiko istripuetako biktima kopuruaren beheranzko joera mantentzea. Beraz, orain helburu berriei ekiteko beste plan bat idatzi behar da. Trafiko Zuzendaritzaren gaur egungo helburuak hauek dira:

– O1. Talde kalteberenak babestea.

– O2. Bide nagusietan trafikoaren kudeaketa hobetzea.

– O3. Bigarren mailako errepideetan bide-segurtasuna hobetzea.

– O4. Portaera desegokiak zuzentzea.

– O5. Hiri-inguruneetan mugikortasun segurua eta iraunkorra bultzatzea.

Helburu horiek koherenteak dira Trafiko Zuzendaritzaren eskumenekin zein Zuzendaritzaren jarduera-eremuekin.

Euskadiko Bide Segurtasunerako eta Mugikortasun Seguru eta Iraunkorrerako Plan Estrategiko (2015-2020) berri hau egitean hori guztia kontuan hartu dugu, eta Euskadiko Bide Segurtasun Batzordeari 2015eko urtarrilaren 30ean eman zaio ezagutzera.

Euskadiko Bide Segurtasunerako Plan Estrategikoa onartzea Gobernu Kontseiluari dagokio, Saileko sailburuaren proposamenez, eta aldez aurretik Euskadiko Bide Segurtasun Batzordeari jakinarazita.

Euskadiko Bide Segurtasunerako Plan Estrategikoa onartzen denean, Eusko Legebiltzarrari bidaliko zaio hark ezagutu dezan, horrela ezartzen baitu ekainaren 28ko 15/2012 Legeak, Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzekoak, bere 64. artikuluaren 2. paragrafoan.

Horregatik, Segurtasuneko sailburuak proposatuta, eta aldez aurretik eztabaidatuta, Gobernu Kontseiluak honako erabaki hau hartu du:

ERABAKIA

«Lehenengoa.– Euskadiko Bide Segurtasunerako eta Mugikortasun Seguru eta Iraunkorrerako Plan Estrategikoa 2015-2020 onartzea.

Bigarrena.– Plan hau Eusko Legebiltzarrera igorriko da, hark planaren berri izan eta gobernu-ekintzaren jarraipen egokia egin dezan.

Hirugarrena.– Jaurlaritzaren Idazkaritzako Zuzendaritzak erabaki hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agindua emango du».